

Urrats berri bat

Maiatzaren 4an urrats berri bat eman genuen Kontseiluan. Azken hilabeteotan zuokin guztiokin partekatutako kezketatik abiatuta, Batzar Nagusiak onespenez onartutako dokumentua zabaldu genuen Donostian. Pozik gaude lortu genuelako Euskal Herriko sektore askotako ordezkariak gonbitari baiezkoa ematea eta aukera izan genuen egun bizi dugun egoera itxaropentsuan euskararen gutxienekoak non kokatu beharko lirakeen zuzenean azaltzeko. Ondorioz, inizatiba propioz jarduteko gaitasuna erakutsi zuen Kontseiluak. Orain, hori guztia kudeatzea besterik ez zaigu falta, baina egin egingo dugu.

*Paul Bilbao Sarria
Idazkari nagusia*

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

- **Tolosaldea:** Errenta-aitorpena euskaraz ekimena jarri da abian tokiko euskalgintzarekin eta administrazioekin. Bestalde, Galtzaundirekin batera, bertako euskalgintza biltzen duen taldea antolatzeko bilkurak egin izan dira.

- **Urretxu-Zumarraga:** Beitia mendi-martxa baliatu da Euskaraz bizi nahi dut mezua zabaltzeko.

- **Goierrri:** Euskalgintzaren eta udal ordezkarien artean mahai-ingurua antolatu zen, Goierriko ekintza-plana zehazteari begira. Bestalde, merkataritzan eragiteko ekimena jarri da abian.

- **Legazpi-Urretxu-Zumarraga:** Euskaraz bizi nahi dut ekintza-planaren lanketa (ikasteetxeetan inkestak, ikasleen lanketak antolatu, flashmob delakoa antolatzeko dinamika zabaldu...).

- **Senpere:** Herriko izen ofiziala Senpere izan dadin kanpaina abiatu dute, euskarazko izenak lehentasuna har dezan eta euskaraz bizitzeko nahia islatzeko.

- **Leitza:** Euskaraz bizi nahi dut lipduba grabatu zuten Leitzako txikiek Erleta eskolan.

- **Tafalla:** Euskararen eguna ospatu zuten maiatzaren 12an eta jende askok argazkia atera zuten Euskaraz bizi nahi dut oihalarekin. Tafallarrek ere euskaraz bizi nahi dute!

Euskalgintzatik kanpoko eragileen bidez bideratutako ekimenak

- euskaraz bizi nahi dut film laburren lehiaketaren sari-emate ekitaldia egin genuen Gasteizen. *Musika airean* filmak irabazi du lehiaketa. Hemen klikatu filma ikusteko.
- Hizkuntzaren keinua izeneko liburu kolektiboa eskuragarri duzue ELKAR liburu-dendetan, eta hurrengo asteotan bazkideok bina ale jasoko duzue. Liburuaren aurkezpen-ekitaldia Gasteizen egin genuen maiatzaren 10ean egin genuen. Hemen klikatu spota ikusteko.

Horietaz gain, euskarazbizinahidut.org helbidera beste hainbat ekimenen testigantza iritsi da: Egiako euskaltzaleen lipduba, Balmasedako Zubi Zaharra ikastolak prestatutakoa, Uskararen aldeko lipduba Bidankozen, etab.

KONTSEILUAREN AGENDA

Ekainak 2

Euskaraz bizi nahi dut garapena herrietan
Mintegia Bilbon
La Bolsa eraikinean
11.00etan

Ekainak 8

Euskaraz bizi nahi dut garapena herrietan
Mintegia Iruñean
Civivox eraikinean
17.00etan

Ekainak 9

Euskaraz bizi nahi dut garapena herrietan
Mintegia Gasteizen
Ordua eta tokia zehazteke

Ekainak 23

Futbol-partida Anoetan
Euskal Herria
Eslovakia

INSTITUZIOEK URRATSAK EMAN DITZATEN ERAGITEA



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu du Kontseiluak arnaguneen lan-ildoak jorratzeko. Kudeaketa-planean jaso bezala, 2012an arnaguneen garrantzia eta balioa azpimarratzeko, beren garapen iraunkorra bermatzeko premiaren eta horien inguruan har litekeen ezein erabakiren inpaktu linguistikoaz kontzientzia harraratzeko dibulgazio- eta sentsibilizazio-lana egingo du Kontseiluak.
- *Donostia 2016* ekimeneko arduradunarekin ere bilera egin dugu. 2016an Donostia Europako kultur hiriburua izanik, euskarak hartu beharreko zentralitatea izan dugu mintzagai.
- Kutxak Ekogunearen inguruan antolatutako aurkezpenean ere parte hartu zuen Kontseiluak.

EUSKALGINTZAREN AKTIBAZIO-PROZESUA

Herrietako lan-taldeari dagokionez, apirileko zuzendaritza-batzordeak onartu zuen lan-taldetik jasotako proposamena, hain zuzen ere, herretan jarduteko moduz. Horrela, Kontseiluak landu beharreko herriei dagokionez, ikuspegi aldaketa izan da. Hasieran, Kontseiluko kideak non kokatu behar ziren aztertzea planteatu bazen ere, ondoren egokiagozat jo da estratetikotzat hartzen ditugun herriak ikuspegi zabalagoetik hautatu eta herri horietan Kontseiluko bazkideen egoeraren arabera erabaki nola jorratu, bazkideek berek edota Kontseiluko langileen errefortzuarekin. Hori guztia euskalgintzarekin partekatzeak honez gero bi mintegi egin dira, Donostian eta Tolosan, eta hurrengo hilabeteotan beste hiru mintegi antolatu dira. *Aipatu lan-taldean AEK-k, IKAK, EHEk, EUSKAL KONFEDERAZIOAK eta TOPAGUNEAK hartzen dute parte.*

Aholkularitzen sektorea: Batetik, lan-mundua euskalduntzean urratsak emateari begira, agerraldi bat egitea adostu da, Kontseiluak eremu honetan izandako bilakaeraren balorazioa egiteko. Bestetik, 2013 urteari begira prestatzen ari garen jardunaren egutegia zehaztu da. Horrela, lehen fasean, lan-munduaren inguruan Kontseiluak duen iritzia sindikalgintzarekin eta sektore ekonomikoekin partekatzeari ekingo zaio. *Aholkularitzen sektorean Ahize-AEK, ARTEZ, Elhuyar Aholkularitza, EMUN eta iBerba bazkideak daude.*

Txillardegiri gorazarre Urtarrileko bileran zuzendaritza-batzordeak erabaki zuen Txillardegik hizkuntza-politikaren inguruan egindako ekarpena zabaltzeko jardunaldia antolatzea litzatekeela Kontseiluak egin ziezaiokeen omenaldirik hoberena. Hartara, Donostiako euskalgintza biltzen duen BATZENekin batera jardunaldia antolatu genuen maiatzaren 12an, eta honako gai hauek jorratu genituen: Txillargedik Kontseiluari egindako ekarpena, ezagutzaren eta erabileraren arteko matiza, glopopolitika, nazioarteko ereduak eta euskalgintza aktiboa. (Hemen klikatu)

EUSKARAREN GUTXIENENAK ZEHAZTEKO ADIERAZPENA

Maiatzaren 4an egindako aurkezpenaren ondoren eman beharreko urratsak jorratu dira zuzendaritza-bileran. Horrela, maiatzean, ekainean eta uztailean eragile politikoekin, sindikalekin, ekonomikoekin eta sozialekin alde biko bilerak egingo dira adierazpenaren edukia sakonkiago azaltzeko.

Horretaz gain, kontuan hartuta Donostiako ekitaldian ipar Euskal Herriko ordezkariak handirik egon ez zela, maiatzaren 30ean, Baionan, dokumentuaren aurkezpen soziala egitea erabaki da.

Horrekin batera, aipatu beharrekoa da dokumentuaren nazioarteko zabalpenari ere ekin zaiola, eta zenbait saretan hedatzen hasia dela, besteak beste, Eurolang, European Language Equality Network, Observatoire international des droits linguistiques, Nationalia... Dokumentua eskuratzeko hemen sakatu.

FINANTZAZIO-ITURRIAK: FUTBOL PARTIDA

Kontseiluaren finantzazio-iturriak propioak bermatzeko ekainaren 23an arratsaldeko 16.30ean Euskal Herria-Eslovakia emakumezkoen futbol-partida antolatu dugu ESAIT eta EHKirolak elkarteekin batera. Partidaz haratagoko eskaintza izango da; hortaz, animatu eta parte hartu!!!!

IRAKURGAIK

NOLAKOA DA GURE UDALEN HIZKUNTZA-POLITIKA?
(Hemen klikatu)

HIZKUNTZA-POLITIKEN URTEKARIA 2011
(Hemen klikatu)

Estadio kanpoaldean (DOAN)

10:30etik aurrera, Irrien Lagunak jolasgunea, txokolatada, gune estaliak bertako jaki-edariekin, kale animazioa (joaldunak, batukada, trikitalariak, Debako elektro-txaranga), euskal jokoak, tailerrak, Dj Bull

11:00etatik aurrera Porrotx, Largabista eta Marikalanbre + Irrien Lagunekin kanta eta dantza + Txan magoa

13:00etan EKITALDIA

13:30ean ZE ESATEK

Estadio barruan (SARRERAREKIN)

15:00etan Kantaldia (Alex GATIBU, Anje Duhalde, Naroa AMAIURI). Puntako kirolarien arteko norgehiagoka, OMENALDIA (emakumezkoen futbolean aintzindari izandakoei)

16:30ean EMAKUMEZKOEN NAZIOARTEKO FUTBOL PARTIDA. EUSKAL HERRIA-ESLOVAKIA

Atsedenean:

Penalti-txandak, Asier Riesgo Osasunako atezainarekin

Zozketa:

Athletic, Real eta selekzioaren kamisetak

Ondoren festarekin jarraitu nahi duenarentzat kanpoaldeko gunea zabalik.

**EKAINAren
23an**

**16:30ean
Euskal Herria**

**emakumezkoen
nazioarteko futbol partida**

**ANOETA
ESTADIOAN
Eslovakia**

*hamanikoa
Selekzio bat, hizkuntza bat,
gaitza!
herri bat*

antolatzaileak:

Aintzane Encinas, Real Sociedad-eko jokalaria

babesleak:

laguntzaileak: